

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

R 1/2015 Ebazpena
26/2010 Espedientea

Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DUTE

Arabako Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua 1. ERAKUNDEAREN (IFZ B----) 2004ko BEZ eta 2. ERAKUNDEAREN (IFZ B----) 2004ko eta 2005eko BEZ ordainarazteko Administrazio eskuduna zehaztea da. Zerga-kontsulta hori 26/2010 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzorde honen aurrean, eta Isaac Merino Jara jaunak jarduten du txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- Arabako Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendariaren 2010eko maiatzaren 20ko 19/2010 ebazpenaren bidez, horrek bere aginpide eza aitortzen du, 3. ERAKUNDEA sozietateak 1. ERAKUNDEAREN eta 2. ERAKUNDEAREN oinordeko gisa eskatutako BEZ itzultzeko, lehena 2004an eta bigarrena 2004an eta 2005ean sortutako eta ordaintzeke dauden kopuruei dagokienez. Ebazpen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

hori 2010eko maiatzaren 21ean jakinarazi zitzaion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari.

- 2010eko ekainaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Arabako Foru Aldundiak gauzatutako eskumenaren atribuzioa ukatu zuen, ez baitzegoen ados horrek defendatutako irizpideekin.

- Gatazka hori Arabako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu foru-diputatuaren 2010eko uztailaren 23ko idazkiaren bidez aurkeztu zen. Hori hilaren 27an sartu zen Arbitraje Batzordean, eta 2011ko martxoaren 28an onartu zen horren izapidetzea.

Aipatutako gatazkan adierazten da 3. ERAKUNDEAK xurgaketarengatiko fusio-eragiketa gauzatu zuela, 2005eko irailaren 26ko eskritura publikoaren bidez, hainbat enpresari dagokienez. Horien artean, egoitza soziala eta fiskala Araban duten jadanik aipatutako biak (1. ERAKUNDEA eta 2. ERAKUNDEA). Fusioa 2003ko azaroaren 17an inskribatu zen Merkataritza Erregistroan, eta urte bereko uztailaren 1etik aurrera ditu kontularitzako eraginak.

- 2011ko martxoaren 29an, Arbitraje Batzordeak gatazkaren aurkezpena jakinarazi zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari. Horrek alegazioak aurkeztu zituen 2011ko maiatzaren 3an (4an erregistratu zen horren sarrera), 1. ERAKUNDEAREN 2004ko 1. KOPURUA euroko BEZ itzultzeko eskumena bere gain hartuta, baina 2. ERAKUNDEAREN 2004ko eta 2005eko saldoak itzultzeko eskumena ukatuta. Ondorioz, eztabaida-eremua murriztu egiten da; izan ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zehazki onartzen du 1. ERAKUNDEARI egin beharreko itzuleraren eskuduna dela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

- 2012ko azaroaren 14an, Arbitraje Batzordeak espedientea jakinarazi zien Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta 3. ERAKUNDEARI, alegazioak egiteko zuten epea adieraziz.

- Arabako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen 2012ko azaroaren 21ean, horien sarrera hurrengo egunean erregistratuta. Horietan, gatazka jartzeko hasierako idazkian, Batzordearen aurrean egindakoak berresten zituen. Hala ere, 2010eko martxoaren 3ko «saldoen itzulerari» buruzko lehen epaia argitzen duen Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aipatuz, itzulera BEZ ordainarazteko Administrazio eskudunak egitea eskatzen du (bere ustez, Zerga Administrazioko Estatu Agentzia), beste inolako Administrazioen bitartekotzarik gabe (bera). Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta 3. ERAKUNDEAK ez dituzte alegaziorik aurkeztu.

3. Arbitraje Batzordearen Araudiaren 17.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, informazio-errekerimendua egin zitzaien Zerga Administrazioko Estatu Agentziari zein Arabako Foru Aldundiari ere, 2. ERAKUNDEAK 2003an, 2004an eta 2005ean aitortutako eragiketa-bolumenaren inguruan (lurralde erkidean kokatutako higiezin salmenten eta foru-lurraldean kokatutako higiezin salmenten kopuruen artean ezberdinduta). Arabako Foru Aldundiak 2014ko azaroaren 28an erantzun zuen errekerimendua; aldiz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2015eko urtarrilaren 15ean erantzun zuen.

4. Aipatu berri dugun Arabako Foru Ogasunaren idazkian adierazten da, bere datu-basearen arabera, 2. ERAKUNDEAK 2003an eta 2004an «aitortutako» eragiketa-bolumena 2. KOPURUA eta 3. KOPURUA eurokoa izan zela, hurrenez hurren. Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuaren eta espedientearen jasotako 2. ERAKUNDEAK igorritako fakturen arabera, 2003ko, 2004ko eta 2005eko eragiketa-bolumena 2. KOPURUA, 3. KOPURUA eta 4. KOPURUA eurokoa izan zela erantzen du.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

5. Bere aldetik, iazko urtarrilaren 15eko idazkian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak honako hau adierazten du, zehazki:

«Bat.- 2003an, zergapekoak ez zituen BEZ eta sozietateen gaineko zerga aitortu, ezta 347 eredia aurkeztu ere; ondorioz, bere eragiketa-bolumena ezezaguna da. Nolanahi ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jasotako hirugarrenen egozte-datuen arabera, 6.000.000 eurotik gorako higiezin salmentak izan zituen.

Bi.- 2004an, zergapekoak ez zuen BEZ aitortu Estatuaren aurrean, ezta 347 eredia aurkeztu ere. Sozietateen gaineko zergaren aitortpenak (estatuak % 100eko proportzioa du) ez du eragiketa-bolumena sartzen; ondorioz, datua ezezaguna da. Nolanahi ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jasotako hirugarrenen egozte-datuen arabera, 6.000.000 eurotik gorako higiezin salmentak izan zituen. Horietako hiru salmentek gutxienez BEZ karga izan zuten: finka baten salmenta 1. UDALERRIAN (lurralde erkidea) 1. ENPRESARI, finka baten salmenta 2. UDALERRIAN (lurralde erkidea) 2. ENPRESARI, eta finka baten salmenta 3. UDALERRIAN (lurralde erkidea) 3. ENPRESARI (ondoren, 4. ENPRESA izena hartuko zuen horrek).

Hiru.- Zergapekoaren 2005eko eragiketa-bolumena ezezaguna da, likidaziorik gabe disolbatu zelako, xurgaketa zela eta. Ondorioz, ulertzen dugu, bere eragiketa-bolumenak fusioaren bidez *uno actu* eskualdatutako ondarearen zenbatespena hartu behar duela barne».

6.- Espedientean jasotako dokumentazioaren arabera, eragiketa-bolumen osoa lurralde erkidean kokatutako higiezin salmentak osatzen du.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldian zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Aplikagarriak diren Ekonomia Itunaren manuak maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak emandako idazketako 27.a, 28.a eta 29.a dira, eta ez urriaren 25eko 28/2007 Legetik ateratako indarrezko idazketan emandakoak.

Hauxe dio 27. artikulua:

“Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehena. Euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien foru-aldundian ordaindu behar dituzte; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte.

(...)

Hirugarrena. Aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badaukate; eta zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian.

Bi. Eragiketa-bolumen osoa hauxe izango da: ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta, halakorik badago, baliokidetasun-errekargua alde batera utzita.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 6 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea bat ez badator urtebete naturalarekin, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketarik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko.

(...)

Hirugarrena. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke, 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan ondasunak eman edo zerbitzuak egiten baditu (...)».

Bere aldetik, eragiketen-gauzapeanaren tokiari dagokionez, aipaturako 28. artikulua honako hau xedatzen du:

“Bat. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira, zergari lotuta dauden operazioen artetik, Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun-emateak:

3. Ondasun higiezinaren emateak, ondasunok euskal lurraldean badaude.

(...)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

Bi. Artikulu honetan aipaturako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek foru-aldundiei ordainduko dizkiete zergak, zerga-egoitza euskal lurraldean badute».

Azkenik, kudeaketari eta ikuskapenari dagokienez, 29. artikulua honako hau ezartzen du:

(...)

«Laugarren. Subjektu pasiboek zergaren aitorten-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorten-likidazio horietan, beti ere, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

a) Zergak foru-aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko zerga-ikuskaritzen lana izango da (...).

2. Adierazi bezala, espedientearen arabera, eragiketa-bolumen osoa lurralde erkidean kokaturako higiezin salmentak osatzen du. Ikus daitezkeen bezala, 2003an eta 2004an, 2. ERAKUNDEAREN eragiketa-bolumena 6 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta lurralde erkidean soilik jardun zuen; aldiz, 2005ean, lurralde erkidean soilik jardun zuen, baina bere eragiketa-bolumena 6 milioitik beherakoa izan zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

Eragiketen gauzapean-tokiari dagokionez, 28. artikulua A letraren 3. arautik ondorioztatzen da, *a sensu contrario*, higiezinaren entregak lurralde erkidean egin direla ulertuko dela, horiek bertan kokatuta daudenean. Horrek esan nahi du, BEZan eta Ekonomia Itunerako, 2. ERAKUNDEAREN eragiketa guztiak Lurralde Erkidean gauzatu direla ulertzen dela.

Beste aldetik, BEZaren ordainarazpenari dagokionez, 27.Bat artikulua lehenengo arauak ezartzen du euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien foru-aldundian ordaindu behar dituztela, eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituztela. Bigarren kasu hori 2. ERAKUNDEARENA da. Nolanahi ere, baliteke arau hori aplikagarria ez izatea batzuetan, eta beste batengatik ordezkatzeko; zehazki, 27.Bat artikulua beraren hirugarren arauarengatik. Horren arabera, aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketaren batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badaukate; eta zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian.

Urte eztabaidagarriak 2004 eta 2005 izanda, kontuan izan beharko dira 2003ko eta 2004ko eragiketa-bolumenak, hurrenez hurren. Bi kasuetan, eragiketa-bolumenak ez ditu 6 milioi euroak gainditzen. Ondorioz, arau aplikagarria 27.Bat artikulua lehenena da. Horrek esan nahi du, kasu honetan, eskumen ordainarazlea Estatuko Administrazioak duela, Zerga Administrazioaren Agentziaren arabera, 2. ERAKUNDEAK 2004ko ekitaldian jasanarazitako eta jasandako BEZaren aitorpenak horren aurrean aurkeztu ez bazituen ere. 29.Lau artikuluan ezarritakoaren arabera, 2. ERAKUNDEAK BEZaren aitorpen-likidazioak aurkeztu behar zituen ordainarazteko eskumena zuen Administrazioaren aurrean. Kasu honetan, Estatuarena da hori, eta horrek ere

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
26/2010	R1/2015	2015-01-26	Arabako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. 2004 eta 2005 ekitaldietan zerga ordainarazteko administrazio eskuduna

dagozkion itzulerak gauzatzeko eskumena du, 29.Bost artikuluen arabera. Azkenik, eta 29.Sei artikuluan ezarritakoaren arabera, ikuskapen-eskumena Estatuko Administrazioari dagokio.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ERABAKI DU

1.- Aitortzea Estatuko Administrazioak duela 1. ERAKUNDEAREN 2004ko BEZ eta 2. ERAKUNDEAREN 2004ko eta 2005eko BEZ ordainarazteko eskumena, dagozkion jarduerak oinordekoaren 3. ERAKUNDEAREKIN gauzatu direla ulertuta.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta 3. ERAKUNDEA erakundeari jakinaraztea.